# Hezkuntzaren kontua. Euskal AE

## Metodologia

# Cuenta de la Educación. C.A. de Euskadi

## Metodología

Eustat

2001

## METODOLOGÍA Y DEFINICIONES

### 1 INTRODUCCIÓN

Se presenta en este volumen la primera edición de la Cuenta de Educación de la Comunidad Autónoma de Euskadi (CECAE), una operación que nace con el objetivo de integrar y ordenar en un marco coherente la información disponible sobre los recursos que consumen el conjunto de las actividades educativas en el ámbito de la Comunidad.

La Cuenta de Educación nace con una vocación de síntesis y carecería de sentido si en el sistema estadístico vasco no se contara con suficiente información de base. Operaciones como la *Estadística de gasto y financiación de la enseñanza pública* y la *Estadística de gasto y financiación de la enseñanza privada*, que son fruto de la colaboración entre EUSTAT y el Departamento de Educación del Gobierno Vasco, constituyen el material básico y el referente obligado sin el cual la presente publicación no hubiera sido posible.

La Cuenta de Educación se define como una cuenta satélite. Las cuentas satélite nacen con el objetivo de ampliar la capacidad analítica de la contabilidad nacional en determinadas áreas de interés social, la educación por ejemplo, manteniendo su coherencia con el marco general de contabilidad nacional. Las cuentas satélite respetan en lo fundamental los criterios de la contabilidad nacional aunque difieren del marco general en alguno o algunos de los siguientes aspectos:

- Proporcionan información adicional.
- Utilizan conceptos complementarios o alternativos. En particular, emplean clasificaciones que resultan de interés en el sector o área en el que se aplican.
- Amplían la cobertura de los costes y los beneficios de las actividades humanas.
- Amplían el análisis de los datos mediante indicadores y agregados específicos.
- Vinculan las fuentes y el análisis de datos físicos con el sistema contable monetario.

## METODOLOGIA ETA DEFINIZIOAK

### 1 SARRERA

Zenbaki honek Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-kontuaren (EAEHK) lehen argitaraldia aurkezten du. Eragiketa horren helburua da integratzea eta ordenatzea esparru koherente batean autonomia erkidegoan hezkuntzaren alorreko jarduerek erabilitako baliabideei buruz eskura daitekeen informazioa.

Hezkuntza-kontua sintesi-asmoarekin sortu dugu, eta ez luke zentzurik izango euskal estatistika-sistemak behar adina oinarrizko informazio izango ez balu. Irakaskuntza publikoaren gastuaren eta finantzaketaren estatistika eta Irakaskuntza pribatuaren gastuaren eta finantzaketaren estatistika eragiketak, bai eta beste batzuek ere, EUSTATen eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren arteko elkarlanaren ondorioa dira. Oinarrizko materiala eta nahitaezko erreferentea izan dira, eta horiek gabe argitalpen hau ez litzateke posible izango.

Hezkuntza-kontua kontu satelite gisa definitzen da. Kontu sateliteak kontabilitate nazionalaren analisi-ahalmena handitzeko sortu dira, gizartearen intereseko eremu jakin batzuetan (adibidez, hezkuntzan), betiere kontabilitate nazionaleko esparru orokorrarekin bateragarri izanik. Kontu sateliteak gauzarik oinarrizkoenetan bat datoz kontabilitate nazionalaren irizpideekin, nahiz eta honako alderdietako batek edo batzuek esparru orokorrarekiko desberdintasunak dituzten:

- Informazio gehigarria eskaintzen dute.
- Kontzeptu osagarri edo alternatiboak erabiltzen dituzte. Bereziki, ezartzen diren sektore edo arloetan interesekoak diren sailkapenak erabiltzen dituzte.
- Kostuen eta giza-jardueren irabazien estaldura handitzen dute.
- Datuen azterketa zabaltzen dute, adierazleen eta agregatu zehatzen bidez.
- Iturriak eta datu fisikoen azterketa lotzen ditu, diru-kontabilitateko sistemari esker.

En tanto que cuenta satélite de la contabilidad nacional, la Cuenta de Educación de la C. A. de Euskadi emplea con profusión definiciones y criterios establecidos en el Sistema Europeo de Cuentas SEC-95. En este sentido, la elaboración de la Cuenta se ha beneficiado de la experiencia del Instituto en la realización de operaciones estadísticas que comparten con CECAE este referente metodológico.

En ausencia de un referente metodológico internacional suficientemente consolidado, EUSTAT ha optado por elaborar una metodología propia, el *Sistema de Cuentas de la Educación* (SCE), que ha sido aplicada por primera vez con motivo de esta operación, y cuyos criterios y definiciones se sintetizan en este capítulo de metodología y definiciones.

Kontabilitate nazionaleko kontu satelite den neurrian, Euskal AEko hezkuntza-kontuak Kontuen Europako Sisteman (KES-95) ezarritako definizio eta irizpide ugari erabiltzen du. Ildo horretan, kontua egitean, EUSTATen esperientzia mesedegarri izan zaigu estatistika-eragiketak egiteko garaian (Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-kontuaren metodologia-erreferente bera duten kasuetan).

Behar adina bateratutako nazioarteko metodologia-erreferenterik ez dagoenez, EUSTATek berezko metodologia lantzea erabaki du: Hezkuntza Kontuen Sistema (HKS). Eragiketa horretarako erabili dugu lehen aldiz, eta irizpide eta definizioak metodologiaren eta irizpideen atal honetan daude laburbilduta.

## 2 SISTEMA DE CUENTAS DE LA EDUCACIÓN (SCE)

El *Sistema de Cuentas de la Educación* (SCE) es un conjunto de definiciones, criterios contables, y clasificaciones aplicables en la elaboración de una cuenta satélite de la educación. SCE proporciona un sustrato conceptual que permite integrar coherentemente la información sobre los recursos empleados en el dominio de la educación, su origen, y la finalidad concreta a la que se destinaron. Con esta intención, SCE propone una serie de clasificaciones específicas de los empleos en el sector educativo que abarcan tres dimensiones diferentes: la de la provisión de los servicios educativos, la de su financiación y la funcional.

Son objetivos generales de SCE:

- Proponer una definición del sector educativo suficientemente precisa, que facilite la estricta delimitación del dominio de la Cuenta de Educación.

- Emplear definiciones que cumplan el doble requisito de ajustarse a la realidad de las instituciones educativas en el ámbito geopolítico de la C. A. de Euskadi y facilitar las comparaciones con otros países y regiones. En atención a este segundo requisito, el SCE hace uso de categorías elaboradas por organismos internacionales y que están suficientemente consensuadas en el ámbito de las estadísticas educativas.

- Proporcionar un esquema para el análisis de sector educativo que sea compatible con el marco general de la Contabilidad Nacional, aunque disponga de elementos característicos y proponga criterios que en algunos aspectos difieran de aquél.

- Proporcionar un núcleo de datos contables sobre el sector educativo que constituyan un instrumento para el análisis del sector desde su vertiente económica, con la intención de favorecer la reflexión y el debate tanto en el terreno científico como en el político.

## 2 HEZKUNTZA-KONTUEN SISTEMA (HKS)

Hezkuntza Kontuen Sistema (HKS) hezkuntzako kontu sateliteak egiteko aplika daitezkeen definizio, kontabilitate-irizpide eta sailkapenen multzoa da. Hezkuntza Kontuen Sistema oinarri kontzeptuala eskaintzen du, eta horri esker hezkuntzan erabilitako baliabideei eta horien jatorriari eta helburu zahatzei buruzko informazioa era koherentean osatzea ahalbidetzen du. Horretarako, Hezkuntza Kontuen Sistemak hezkuntza-sektoreko lanpostuen hainbat sailkapen zehatz proposatzen du, hiru esparru hartuz: hezkuntza-zerbitzuen hornikuntza, finantzaketa eta esparru funtzionala.

Hezkuntza Kontuen Sistemaren helburu orokorrak honako hauek dira:

- Hezkuntza-sektorearen definizio bat proposatzea, aski zehatza izango dena; horrela, hezkuntza-kontuaren eremua xeheki mugatu ahal izango dugu.

- Euskal AEko eremu geopolitikoko hezkuntza-erakundeetarako egoki diren eta beste herrialde eta eskualdeekin alderatzea ahalbidetuko duten definizioak erabiltzea. Bigarren betekizun hori kontuan hartuta, Hezkuntza Kontuen Sistemak nazioarteko hainbat erakundek landutako kategoriak erabiltzen ditu; izan ere, hezkuntza-estatistiken eremuan behar adina adostasun dago horien inguruan.

- Hezkuntza-sektorea aztertzeko eskema sortzea, kontabilitate nazionaleko esparru orokorrarekin bateragarria izango dena, nahiz eta guztiz bat ez datozen irizpideak proposatu.

- Hezkuntza-sektoreari buruzko kontabilitate-datuen gune bat sortzea, sektorea aztertzeko analisi-tresna izango dena ekonomiaren ikuspuntutik, eta hausnarketa eta eztabaida erraztuko duena bai zientziaren bai politikaren arloan.

Son objetivos específicos de SCE:

- Determinar el consumo final efectivo, tanto individual como colectivo, en el sector educativo; y desglosarlo de acuerdo con criterios de clasificación propios del sector y que, en algunos casos, responden a estándares internacionales, lo cual facilita la comparabilidad internacional de los resultados obtenidos para la CAE.
- Esclarecer las operaciones de distribución en que incurren las unidades institucionales que financian directa o indirectamente las actividades que forman parte del ámbito de aplicación de la cuenta.
- Describir la contribución de cada uno de los sectores institucionales a la financiación de los bienes y servicios en el sector educativo de acuerdo con dos conceptos alternativos de financiación: financiación directa y saldo neto de financiación.

## 3 DEFINICIÓN DEL DOMINIO DE LA CUENTA DE EDUCACIÓN DE LA C. A. DE EUSKADI.

SCE propone una definición de la educación y de las actividades que comprende el sector educativo que se caracteriza por su exhaustividad. En el dominio de la CECAE se incluyen todas las actividades que se ajustan a la definición ISCED-97 (International Standard Classification of Education) de UNESCO, con independencia de la titularidad del establecimiento que las provee, o del origen de los fondos que sirven para financiarlas.

ISCED-97 es un instrumento concebido por UNESCO para el acopio, la compilación y la presentación de indicadores relativos al sector educativo que sean comparables lo mismo en contextos nacionales que internacionales. ISCED-97 propone una serie de categorías relativas a la definición de las actividades educativas y su clasificación de acuerdo con dos criterios: el nivel educativo y el sector de educación.

De acuerdo con ISCED-97 la educación "comprende todas las actividades voluntarias y sistemáticas destinadas a satisfacer necesidades de aprendizaje, incluyendo las que en algunos países se denominan actividades culturales o de formación. Cualquiera que fuere la denominación que se adopte, la educación supone en este caso una comunicación organizada y continuada, destinada a suscitar el aprendizaje".

Los conceptos clave de la noción de educación ISCED-97 se definen así:

- COMUNICACIÓN. Es la relación entre dos o más personas, que supone la transmisión de información (mensajes, ideas, conocimientos, estrategias, etc.). La comunicación puede ser verbal o no verbal, directa / presencial o indirecta / a distancia, y suponer una gran variedad de conductos y medios de difusión.
- APRENDIZAJE. Es cualquier mejora del comportamiento, la información, los conocimientos, las actitudes, los valores o las capacidades.

Hezkuntza Kontuen Sistemaren helburu zehatzak honako hauek dira:

- Hezkuntza-sektoreko benetako azken kontsumoa –bai indibiduala eta bai kolektiboa– zehaztea eta sektorearen sailkapen-irizpideen arabera xehekatzea; horietako batzuk nazioarteko estandarrekin bat datozenez, nazioarteko konparagarritasuna errazten dute Euskal Aen lorturiko datuetarako.
- Kontuaren aplikazio-eremuaren parte diren jarduerak zuzenean edo zeharka finantzatzen dituzten erakunde-unitateen banaketa-eragiketak argitzea.
- Hezkuntza-sektoreko zerbitzuak eta ondasunak finantzatzen dituzten erakunde-sektore guztien ekarpena deskribatzea, bi finantzaketa-kontzeptu alternatibori jarraituz: finantzaketa zuzena eta finantzaketa--saldo garbia.

## 3 EUSKAL EAKO HEZKUNTZA-KONTUAREN EREMUAREN DEFINIZIOA

Hezkuntza Kontuen Sistemak hezkuntzaren eta hezkuntza-sektoreak barne hartzen dituen jardueren definizioak proposatzen ditu, zehaztasuna bereizgarri izanik. Euskal AEko Hezkuntza Kontuen eremuan UNESCOren ISCED-97aren (International Standard Classification of Education) definizioarekin bat datozen jarduera guztiak barne hartzen dira, edozein direla ere aurrera eramaten dituen establezimenduaren titulartasuna, edo finantzatzeko balio duten funtsen jatorria.

ISCED-97 UNESCOk sortutako tresna da hezkuntza-sektoreko adierazleak biltzeko, konpilatzeko eta aurkezteko, betiere horiek testuinguru nazionalean zein nazioartekoan konpara daitezkeenean. ISCED-97 sailkapenak hezkuntza-jardueren eta horien sailkapenaren definizioaren araberako kategoriak proposatzen ditu, bi irizpideri jarraituz: hezkuntza-mailari eta hezkuntza-sektoreari.

ISCED-97aren arabera, hezkuntzak «ikaskuntzaren beharrak aseko dituzten jarduera borondatezkoak nahiz sistematikoak hartzen ditu barne, herrialde batzuetan kultura- edo heziketa-jarduera deitzen dena ere hartuz. Emandako izena edozein izanda ere, kasu honetan hezkuntza komunikazio antolatua eta jarraitua da, eta ikaskuntza sustatzea du helburu».

ISCED-97ak hezkuntza nozioaren inguruan dituen funtsezko kontzeptuak honako hauek dira:

- KOMUNIKAZIOA. Bi pertsonaren edo gehiagoren arteko harremana da, non informazioa igortzen den (mezuak, ideiak, ezagutzak, estrategiak, eta abar). Komunikazioa hitzezkoa edo hitzik gabekoa, zuzena (presentziakoa) edo zeharkakoa (urrutikoa) izan daiteke, eta askotariko hedabide edo baliabideak erabil ditzake.
- IKASKUNTZA. Jokabidearen, informazioaren, ezagutzen, jarreren, balioen eta gaitasunen hobekuntza oro da.

- ORGANIZADA. La actividad educativa debe estar prevista en un plan o secuencia de objetivos explícitos o implícitos. Esto supone la existencia de un proveedor (una o varias personas, o un organismo) que establece el marco del aprendizaje y un método de enseñanza mediante el cual se organiza la comunicación. El método consiste tradicionalmente en la presencia de una persona dedicada a comunicar o difundir conocimientos y capacidades con miras a producir el aprendizaje, pero también puede ser indirecto / inanimado, por ejemplo un programa informático, una película, una cinta magnetofónica, etc.

- CONTINUADA. La experiencia de aprendizaje se caracteriza por su duración y continuidad.

Debido al carácter abstracto de la definición ISCED-97, en ocasiones es complicado precisar si una determinada actividad forma parte de la educación o no. Resulta práctico, por tanto, apoyar las categorías abstractas con acotaciones que se apoyen en realidades e instituciones más concretas y próximas. Con esa intención se ofrece a continuación una relación de algunas de las actividades incluidas y excluidas del dominio de la CECAE de acuerdo con SCE:

Las siguientes actividades sí forman parte del dominio de la educación definido en SCE:

✓ La totalidad de las actividades educativas, con independencia de su sujeción a un marco legal específico, es decir tanto la educación reglada como la no reglada.

✓ Tanto las actividades educativas que se financian con fondos públicos como las que corren a cargo de particulares e instituciones privadas.

✓ Se considera como actividad educativa la formación profesional en sus tres vertientes:

- Formación profesional reglada.
- Formación ocupacional.
- Formación continua con independencia de que sea financiada o gestionada por instituciones específicas o por las propias empresas.

✓ La enseñanza de idiomas y, en particular, la enseñanza del Euskera, con independencia de que ésta tenga lugar o no en establecimientos dedicados a impartir enseñanza reglada.

✓ En SCE se investigan, además de las actividades propiamente educativas, las actividades auxiliares o relacionadas con la prestación de servicios educativos. Por ejemplo, forman parte del dominio de la operación actividades como el transporte escolar, los comedores o las residencias siempre y cuando fueran gestionados por las propias instituciones educativas. Por ejemplo, se considera el gasto familiar en transporte escolar organizado por el colegio o instituto pero no ese mismo gasto cuando el transporte tiene lugar en cualquier otro vehículo público o privado. Del mismo modo, se recoge el gasto en los comedores escolares, pero no el que pudieran realizar los estudiantes en otros establecimientos de hostelería. También se

- ANTOLATUA. Hezkuntza-jarduera plan bati edo helburu-segida bati (bai esplizituak eta bai inplizituak) jarraituz antolatu behar da. Horregatik hornitzailea (pertsona bat edo gehiago, edo erakunde bat) beharrezkoa da, ikaskuntza-eremua eta komunikazioa antolatuko duen ikas-metodoa ezartzeko. Metodoa, tradizioz, honetan datza: pertsona batek ezagutzak eta ahalmenak hedatzeko edo komunikatzeko ardura du, ikaskuntza sustatzeko asmoz; hala ere, zeharkakoa edo bizigabea izan daiteke, hala nola informatika--programa bat, film bat, magnetofono-zinta bat, eta abar.

- ETENGABEA. Ikaskuntzaren ezaugarriak iraupena eta jarraipena dira.

ISCED-97aren definizioa abstraktua denez, batzuetan zaila da jarduera jakin bat hezkuntzaren barruan dagoen ala ez zehaztea. Hortaz, baliagarria da kategoria abstraktuetan oharrak azaltzea, zehatzago eta hurbilago zaizkigun errealitateak eta erakundeak aipatuz. Helburu horrekin aurkezten dugu segidan Hezkuntza Kontuen Sistemaren arabera Euskal EAko Hezkuntza Kontuen eremuan onartzen diren eta onartzen ez diren jarduera batzuk:

Honako jarduera hauek Hezkuntza Kontuen Sistemak definitutako hezkuntza-eremuaren barnean daude:

✓ Hezkuntza-jarduera guztiak, legezko esparru zehatza edozein dela ere; hau da, bai hezkuntza arautua, bai eta hezkuntza ez arautua ere.

✓ Funts publikoek nahiz partikularrek edo erakunde pribatuek finantzatutako hezkuntza-jarduerak.

✓ Lanbide-heziketan egin daitezken hiru bideak hezkuntza-jardueratzat hartzen dira:

- Lanbide-heziketa arautua.
- Lanerako prestakuntza.
- Prestakuntza etengabea, bai erakunde jakinek, bai enpresek finantzatutakoa.

✓ Hizkuntzak irakastea, bereziki euskara, bai irakaskuntza arautuko establezimenduetan egiten bada, bai eta bestela ere.

✓ Hezkuntza Kontuen Sisteman, hezkuntza-jarduerez gai, beste batzuk ere ikertzen dira; hau da, laguntza-jarduerak edo hezkuntza-zerbitzuak ematearekin harremana duten jarduerak. Adibidez, eremukoak diren jarduera horien artean, eskola-garraioa, jantokiak edo ikasle-egoitzak daude, baldin hezkuntza-erakundeek berek kudeatzen badituzte. Adibidez, eskolak edo institutuak antolatutako eskola-garraioa familia-gastutzat hartzen da, baina ez gastu hori bera beste garraiobide batean (publikoa nahiz pribatua) eginez gero. Era berean, eskola-jantokietako gastua onartzen da, baina ez ikasleek beste ostalaritza-establezimenduetan egingo

incluyen otras actividades relacionadas con la educación como las visitas o la asistencia a actos culturales, siempre y cuando éstas sean programadas y organizadas por los propios establecimientos educativos.

✓ Las actividades de administración general del sistema educativo, como por ejemplo la definición de los planes de estudios, en las que tienen responsabilidades las administraciones públicas tanto nacionales como autonómicas.

✓ Finalmente, forman parte del dominio de la educación definido por SCE las actividades de investigación e innovación educativa.

Por el contrario, SCE excluye los siguientes conceptos:

× Con respecto a la producción doméstica, SCE se ajusta perfectamente al marco SEC-95 que establece como principio general excluir de su campo de aplicación la producción de bienes y servicios por parte de los hogares por considerarla escasamente significativa en la UE. Como excepción, sí se consideran los servicios domésticos (incluyendo la educación y la formación de los niños) cuando son producidos por personal doméstico remunerado.

× La enseñanza proporcionada en los hospitales universitarios que se entiende dentro del campo de la sanidad.

× Las campañas informativas de carácter público.

× Las actividades que, aunque equivalentes por su naturaleza a las actividades formativas, no tienen una finalidad ni exclusiva ni principalmente formativa. Por ejemplo, los cursos proporcionados por los departamentos comerciales de las empresas a sus clientes sobre el uso de máquinas, herramientas o sistemas.

× Las actividades de investigación científica y tecnológica (excepto la investigación y la innovación educativa). En el sector universitario público se estima la parte de los salarios de los docentes imputable a actividades de investigación, que no forma parte del gasto en educación.

## 4 EL SISTEMA DE CUENTAS DE LA EDUCACIÓN Y EL SISTEMA EUROPEO CUENTAS

Uno de los objetivos específicos del Sistema de Cuentas de la Educación, SCE, consiste en determinar los empleos finales en las actividades educativas. SCE pretende satisfacer este objetivo ofreciendo, al igual que se propone en el Sistema Europeo de Cuentas SEC-95, una doble perspectiva del concepto de consumo final: el consumo efectivo y el gasto en consumo final.

- El *gasto en consumo final* se define como el *gasto realizado* por las unidades institucionales residentes en bienes y servicios que utilizan para satisfacer directamente las necesidades o carencias individuales, o las necesidades colectivas de los miembros de la comunidad.

- Por su parte, el *consumo final efectivo* comprende los bienes y servicios *adquiridos* por unidades institucionales residentes para la satisfacción directa de las necesidades humanas, ya sean éstas individuales o colectivas.

luketen gastua. Hezkuntzarekin harremana duten beste jarduera batzuk ere onartzen dira; esaterako, bisitak edo kultura-jarduerak, baldin hezkuntza-establezimenduek antolatzen badituzte.

✓ Hezkuntza-sistemako administrazio orokorraren jarduerak, hala nola ikasketa-planak definitzea, estatuko nahiz autonomia-erkidegoko herri-administrazioen ardura direnak.

✓ Bukatzeko, Hezkuntza Kontuen Sistemak definitutakoaren arabera hezkuntza-eremuaren barnean daude ikerketa-jarduerak eta hezkuntza eraberritzea.

Bestalde, Hezkuntza Kontuen Sistemak honako kontzeptu hauek kanpoan uzten ditu:

× Etxeko produkzioari dagokionez, Hezkuntza Kontuen Sistema guztiz bat dator KES-95arekin, eta etxeetako ondasun- eta zerbitzu-produkzioa aplikazio-eremutik kanpo uztea hartzen du oinarritzat, Europar Batasunaren barruan garrantzi gutxikotzat jotzen duelako. Salbuespen gisa, etxeko zerbitzuak onartzen dira (haurren hezkuntza eta prestakuntza barne), etxeko langile ordainduek egiten badute.

× Unibertsitate-ospitaletan ematen den irakaskuntza, osasun-eremuaren barruan dagoela ulertzen delako.

× Informazio-kanpaina publikoak.

× Berez prestakuntza-jardueren pareko izan arren, esklusiboki edo nagusiki prestakuntzara zuzenduta ez dauden jarduerak. Adibidez, enpresetako merkataritza--departamentuek bezeroentzat makinen, lantresnen edo sistemen erabilerari buruz antolatutako ikastaroak.

× Zientzia- eta teknologia-ikerketa jarduerak (hezkuntza--ikerketa eta hezkuntza-eraberritzea izan ezik). Unibertsitate publikoaren eremuan, ikerketa-jardueretara bideratu den irakasleen soldaten zatia ez da hezkuntza-gastutzat hartzen.

## 4 HEZKUNTZA-KONTUEN SISTEMA ETA KONTUEN EUROPAKO SISTEMA

Hezkuntza Kontuen Sistemaren (HKS) helburu nagusietako bat hezkuntza-jardueretako azken erabilerak zehaztea da. Hezkuntza Kontuen Sistemak helburu hori bete nahi du, Kontuen Europako Sistemak (KES-95) ere proposatu bezala, azken kontsumoaren kontzeptua bi ikuspegitatik eskainiz. benetako kontsumoa eta azken kontsumoko gastua.

- Azken kontsumoko gastua da banakako behar edo gabeziak -edota komunitateko kideen taldeko beharrak- zuzenean asetzeko erabiltzen diren ondasun eta zerbitzuetan erakunde-unitate egoiliarrek egindako gastua.

- Bestalde, benetako azken kontsumoa erakunde-unitate egoiliarrek giza beharrizanak (banakakoak nahiz taldekoak) zuzenean asetzeko erositako zerbitzuen balioarekin bat dator.

La distinción entre los conceptos de *gasto en consumo final y consumo final efectivo* atiende a que en ocasiones tiene lugar una discrepancia entre la unidad institucional que realiza el *gasto* y la que realmente *adquiere* el bien o servicio en cuestión. Por ejemplo, las Administraciones Públicas realizan gastos en bienes y servicios que son directamente transferidos a los hogares. En tal caso, el *gasto* en consumo final se le imputa a la administración pública en cuestión, pero es a los hogares a los que ha de considerarse adquirientes de los bienes y servicios y, por tanto, a éstos les corresponde el consumo final efectivo.

Además del consumo final en el sector educativo, CECAE investiga también las siguientes operaciones de distribución en las que incurren las unidades institucionales siempre en relación con el dominio de la cuenta:

D.31, Subvenciones a los productos.

D.39, Otras subvenciones a la producción.

D.61, Cotizaciones sociales.

D.63, Transferencias sociales en especie.

D.631, Prestaciones sociales en especie.

D.632, Transferencias de bienes y servicios no de mercado individuales.

D.73, Transferencias entre administraciones públicas.

D.75, Transferencias corrientes diversas.

La investigación de las operaciones de distribución entre unidades institucionales tiene una doble utilidad en esta operación:

- Por un lado, permite calcular el gasto en *consumo final* de una determinada unidad residente o sector institucional partiendo de su *consumo efectivo*. En la tabla adjunta se describe la relación entre ambos conceptos.
- Por otro, saca a la luz el origen último de los recursos empleados y ofrece, con ello, una perspectiva diferente de la financiación de las actividades educativas que SCE denomina saldo neto de financiación (vid. §.5 infra).

En lo esencial, SCE respeta la manera en que los agregados anteriores se definen en el SEC-95, así como los criterios relativos a su valoración. No obstante, existen algunas situaciones que requieren alguna precisión adicional:

**Formación profesional**

Las actividades formativas de los empleados financiadas por el empleador (sea éste productor de mercado u otro productor no de mercado) no se consideran empleos finales en SEC-95, sino que forman parte, bien de los consumos intermedios, bien de los costes de producción del empleador.

SCE considera, por el contrario, que la formación de los trabajadores financiada por las empresas y administraciones para las que trabajan debe formar parte del consumo final en el sector en atención a su importancia cuantitativa, lo mismo que a su relevante papel en el sistema económico de las sociedades más avanzadas.

Azken kontsumoko gastu eta benetako azken kontsumo kontzeptuak bereizten dira batzuetan gastua egiten duen erakunde-unitatea eta ondasuna edo zerbitzua eskuratzen duena ez datozelako bat. Esate baterako, herri-administrazioek gastuak egiten dituzte ondasunetan eta zerbitzuetan, eta etxeetara igortzen dira zuzenean. Kasu horretan, azken kontsumoko gastua herri-administrazio horri egozten zaio, baina etxeak kontsideratzen dira ondasun eta zerbitzuen erosleak, eta, ondorioz, horiei dagokie benetako azken kontsumoa.

Hezkuntza-sektoreko azken kontsumoaz gain, Euskal AEko Hezkuntza Kontuak honako banaketa-eragiketa hauek ere ikertzen ditu, kontuaren eremuarekin betiere harremana duten erakunde-unitateek aurrera eramaten dituztenak:

D.31, Produktuetarako diru-laguntzak.

D.39, Ekoizpenerako beste diru-laguntza batzuk.

D.61, Gizarte-kotizazioak.

D.63, Gauzatan egindako gizarte-transferentziak.

D.631, Gauzatan emandako gizarte-prestazioak.

D.632, Merkatuz bestekoak diren banakako ondasun eta zerbitzuen transferentziak.

D.73, Herri-administrazioen arteko transferentziak.

D.75, Askotariko transferentzia arruntak.

Erakunde-unitate arteko banaketa-eragiketak aztertzeak baliagarritasun bikoitza du jarduera honetan:

- Batetik, unitate egoiliar jakin baten edo erakunde-sektore baten azken kontsumoko gastua kalkulatzea ahalbidetzen du benetako kontsumotik abiatuz. Honako taula honetan bi kontzeptuen arteko harremana deskribatzen da:
- Bestalde, agerian uzten du erabilitako baliabideen azken jatorria, eta, horrela, finantzaketaren eta hezkuntza-jardueren ikuspuntu desberdin bat, Hezkuntza Kontuen Sistemak finantzaketa-saldo garbi esaten diona, eskain dezake (vid. §.5 infra).

Funtsean, Hezkuntza Kontuen Sistemak aurreko agregatuak KES-95ean zuten definizioa errespetatzen du, bai eta balioztatze-irizpideak ere. Hala ere, gehiago zehaztea behar duten zenbait egoera badaude:

**Lanbide-heziketa**

Enplegatzaileak (merkatuko produktorea edo merkatukoa ez den produktorea izanda ere) finantzatutako langileentzako prestakuntza-jarduerak ez dira azken erabileratzat hartzen KES-95aren arabera; izan ere, bitarteko kontsumotzat edo enplegatzailearen ekoizpen-kostutzat jotzen dira.

Hezkuntza Kontuen Sistemak, ordea, langileek lan egiten duten enpresek eta administrazioek finantzatutako prestakuntzak sektorearen azken kontsumoaren zati izan beharko lukeela uste du, gizarte aurreratuenetako ekonomia-sistemetan duten garrantzia kontua izanda.

**Becas**

SCE no toma en consideración todas las formas que adoptan las becas y ayudas al estudio. Las modalidades descartadas son:

- Las becas de investigación, al entenderse que en ellas predomina la finalidad investigadora frente a la de formación del personal investigador.
- Las becas de colaboración por considerarse que, sin perjuicio del aprendizaje del que pueda beneficiarse el becado, representan principalmente la contrapartida de su trabajo.
- Las ayudas compensatorias por dos razones: a) su finalidad básica es la protección social y b) no están orientadas a sufragar el coste de bienes o servicios educativos o relacionados, sino otro tipo de necesidades de las familias beneficiarias.

Esta restricción supone que, en la práctica, las únicas modalidades de beca investigadas en CECAE son aquéllas que representan algún tipo de transferencia finalista (ayuda para matrículas y cuotas de enseñanza, desplazamiento, residencia, comedor y material didáctico).

El tratamiento de las becas y ayudas al estudio que se propone para CECAE se ajusta en lo esencial a los criterios SEC-95. Todas las categorías de becas que se consideren en la cuenta formarán parte de la rúbrica D.75 de transferencias corrientes diversas.

**Bekak**

Hezkuntza Kontuen Sistemak ez ditu kontuan hartzen beka eta ikasketa-laguntzen mota guztiak. Hauek dira alde batera utzitako modalitateak:

- Ikerketako bekak, ikertzaileen prestakuntza baino, ikerketaren helburua garrantzi handiagokoa delako.
- Lankidetza-bekak, bekadunak ikasi dezakeenari kalterik egin gabe, lanaren ordainak direlako batik bat.
- Osabidezko laguntzak, bi arrazoigatik: a) xede nagusia gizarte babesa da; b) ez daude bideratuta hezkuntzako ondasunei eta zerbitzuei lotutako kostuei aurre egiteko, familia onuradunen beste mota bateko beharrei baizik.

Murrizketa horrengatik, praktikan, Euskal AEko Hezkuntza Kontuak ikertutako beka-modalitate bakarrak helburu jakin bat duten transferentziak dira (matrikulak eta irakaskuntzako kuotak, joan-etorriak, bizilekua, jantokia eta ikasmateriala ordaintzeko diru-laguntzak).

EAEHKrako proposatzen den beken eta ikasketa-laguntzen tratamendua, funtsean, KES-95aren irizpideekin bat dator. Kontuak barne hartzen dituen beka-kategoria guztiak D.75 izenpean ageri diren askotariko transferentzia arruntzat joko dira.

| | **Gastua egiten duen sektorea**<br>Sector que realiza el gasto | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | **Herri-<br>-Administrazioak**<br>Administraciones Públicas | **ISFLSH** | **Etxeguneak**<br>Hogares | **Sozietateak**<br>Sociedades | **Erosketak guztira**<br>Adquisiciones totales |
| **Benetako kontsumo indibiduala**<br>Consumo efectivo individual | **Gauzatan egindako gizarte-transferentziak (D.63)**<br>Transferencias sociales en especie (D.63)<br>**Askotariko transferentzia arruntak.(D.75) Herri-administrazioetako langileen etengabeko prestakuntza**<br>Transferencias corrientes diversas (D.75). Formación Continua de los empleados de las AAPP | **ISFLSHek gauzatan egindako gizarte-transferentziak**<br>Transferencias sociales en especie de las ISFLSH | **Etxeguneen azken kontsumoko gastu indibiduala**<br>Gasto en consumo final individual de los hogares | **Askotariko transferentzia arruntak.(D.75): Langileen etengabeko prestakuntza**<br>Transferencias corrientes diversas (D.75): Formación continua de los empleados | **Etxeguneen azken kontsumoko gastu indibiduala**<br>Consumo final individual efectivo de los hogares |
| **Benetako kontsumo kolektiboa**<br>Consumo efectivo colectivo | **Herri-administrazioen benetako kontsumo kolektiboa**<br>Consumo efectivo colectivo de las Administraciones Públicas | 0 | 0 | 0 | **Herri-administrazioen benetako azken kontsumo kolektiboa**<br>Consumo final colectivo efectivo de las Administraciones Públicas |
| **Guztira**<br>Total | **Herri-administrazioen azken kontsumoko gastua**<br>Gasto en consumo final de las administraciones públicas | **ISFLSHen azken kontsumoko gastua**<br>Gasto en consumo final de las ISFLSH | **Etxeguneen azken kontsumoko gastua**<br>Gasto en consumo final de los hogares | **Sozietateen azken kontsumoko gastua**<br>Gasto en consumo final de las sociedades | **Benetako azken kontsumoa, guztira = Azken kontsumoko gastua guztira**<br>Consumo final efectivo total = Gasto en consumo total en consumo final |

## 5 LA FINANCIACIÓN DEL GASTO EN EDUCACIÓN

En SCE, la investigación de las operaciones de distribución tiene como objetivo aclarar los flujos económicos que tienen lugar entre las unidades residentes pertenecientes a los diversos sectores institucionales y que se encuentran detrás de la financiación del consumo final de bienes y servicios en el sector educativo. Dichas operaciones de distribución se reflejan en cuentas específicas para cada una de las unidades básicas; es decir, unidades institucionales y agrupaciones o fracciones de éstas. Las operaciones de distribución dan lugar a un saldo que se expresa en cada cuenta. Asimismo, se añade en el capítulo de empleos el consumo efectivo, colectivo e individual, de las unidades básicas en los sectores administración pública y hogares, que son los dos únicos sectores a los que, atendiendo a los criterios del marco general SEC-95, cabe imputar consumo final efectivo.

Partiendo de este esquema, SCE está en disposición de ofrecer una doble vertiente de la financiación de las actividades educativas:

- Financiación directa.
- Saldo neto de financiación.

La perspectiva de la *financiación directa* considera la contribución de cada unidad (o sector) en función del consumo efectivo realizado en las actividades que conforman el sector en cuestión más el gasto realizado en beneficio de terceras unidades (sectores) que son las que reciben y se benefician de los bienes o servicios. La contribución de cada unidad (sector) se calcula, desde esta perspectiva, sumando a su consumo efectivo los empleos menos los recursos en prestaciones sociales en especie, D. 631; transferencias de bienes y servicios no de mercado individuales, D. 632; y, en su caso, el importe de los gastos en formación profesional de los empleados propios que forma parte del agregado D.75.

La segunda perspectiva, *saldo neto de financiación*, analiza la procedencia última de los recursos que entran en juego en el sector. De acuerdo con esta perspectiva se calcula el saldo de financiación de cada unidad básica (o sector) como resultado de deducir de su consumo final efectivo el saldo correspondiente a las operaciones entre unidades (sectores).

## 6 CLASIFICACIONES DEL GASTO EN EDUCACIÓN

SCE plantea una triple clasificación de los empleos finales en el sector educativo, una clasificación de corte funcional (SCE-EF), que identifica las actividades educativas según la finalidad que persiguen; una clasificación por proveedores (SCE-EP), que distribuye el gasto en función de la naturaleza de la unidad que provee los bienes y servicios; y una tercera clasificación, por financiadores (SCE-ER), que atiende al sector institucional al que pertenecen las unidades que financian el gasto.

## 5 HEZKUNTZAKO GASTUEN FINANTZAKETA

Hezkuntza Kontuen Sisteman, banaketa-eragiketak aztertzearen helburua da hainbat erakunde-sektore osatzen duten eta hezkuntza-sektoreko ondasunen eta zerbitzuen azken kontsumoa finantzatzen duten unitate egoiliarren arteko fluxu ekonomikoak argitzea. Banaketa-eragiketa horiek oinarrizko unitate guztietako (erakunde-unitateak, taldeak edo horien zatiak) kontu zehatzetan islatzen dira. Banaketa-eragiketak kontu guztietako saldoan adierazten dira. Orobat, erabilerei buruzko kapituluan, herri-administrazioen eta etxeen sektoreetako oinarrizko unitateen azken kontsumo kolektiboa eta indibiduala adierazten dira; bi horiek dira, KES-95aren esparru orokorraren arabera, benetako azken kontsumotzat har daitezken sektore bakarrak.

Eskema hori oinarritzat hartuta, Hezkuntza Kontuen Sistemak hezkuntza-jarduerak finantzatzeko bi bide eskaintzen ditu:

- Zuzeneko finantzaketa.
- Finantzaketa-saldo garbia.

Zuzeneko finantzaketak unitate (edo sektore) bakoitzaren ekarpena kontsideratzen du, irizpidetzat hartuz sektore hori osatzen duten jardueren azken kontsumoa eta beste unitate batzuen (sektoreak) onurarako egindako gastua; azken horiek dira ondasunak eta zerbitzuak jasotzen dituztenak. Unitate (sektore) bakoitzaren ekarpena horrela kalkulatzen da: enpleguen azken kontsumoa ken gauzatan emandako gizarte-prestazioen helegiteak, D.631; merkatuz bestekoak diren ondasun eta zerbitzu indibidualen transferentziak, D.632; eta, hala badagokio, D.75 agregatuko langile propioentzako lanbide-heziketako gastuen zenbatekoa.

Bigarren ikuspegiak, finantzaketa-saldo garbiak, sektorean parte hartzen duten baliabideen azken jatorria aztertzen du. Ikuspegi horren arabera, oinarrizko unitate (edo sektorea) bakoitzaren finantzaketa-saldoa kalkulatzen da. Horretarako, unitateen (sektoreak) arteko eragiketei dagokien saldoa kentzen zaio benetako azken kontsumoari.

## 6 HEZKUNTZAKO GASTUEN SAILKAPENAK

Hezkuntza Kontuen Sistema hezkuntza-sektoreko azken erabileren sailkapen hirukoitza eratu du. Sailkapen funtzional batek (HKS-EF) hezkuntza-jarduerak helburuaren arabera identifikatzen ditu. Hornitzaileka egindako sailkapenak (HKS-EP) gastua, ondasunak eta zerbitzuak ematen dituen unitatearen arabera sailkatzen du. Hirugarren sailkapenak (HKS-ER), finantzatzaileen araberakoak, gastua finantzatzen duten unitateen erakunde-sektoreak hartzen ditu irizpidetzat.

### 6.1 Clasificación funcional del gasto en educación (SCE-EF)

La clasificación funcional que propone SCE se compone de las categorías recogidas en la tabla adjunta y que se describen a continuación:

### 6.1 Hezkuntza-gastuaren sailkapen funtzionala (SCE-EF)

Hezkuntza Kontuen Sistemak proposatutako sailkapen funtzionala honako taula honetan jasotzen diren kategoriek osatzen dute:

| | |
|---|---|
| EF.1. SERVICIOS EDUCATIVOS y FORMATIVOS | **EF.1. HEZKUNTZA- eta PRESTAKUNTZA-ZERBITZUAK** |
| EF.1.1. Enseñanza Reglada | **EF.1.1. Irakaskuntza arautua** |
| EF.1.2. Enseñanza no Reglada | **EF.1.2. Irakaskuntza ez-arautua** |
| EF.2. ACTIVIDADES COMPLEMENTARIAS | **EF.2. JARDUERA OSAGARRIAK** |
| EF.2.1. Transporte | **EF.2.1. Garraioa** |
| EF.2.2. Comedor | **EF.2.2. Jantokia** |
| EF.2.3. Residencia | **EF.2.3. Bizilekua** |
| EF.2.4. Otras | **EF.2.4. Bestelakoak** |
| EF.3. LIBROS Y MATERIAL ESCOLAR ADQUIRIDO POR LOS HOGARES | **EF.3. ETXEGUNEEK EROSITAKO LIBURUAK ETA ESKOLA-MATERIALA** |
| EF.4. ADMINISTRACIÓN GENERAL DEL SISTEMA EDUCATIVO | **EF.4. HEZKUNTZA-SISTEMAKO ADMINISTRAZIO OROKORRA** |
| EF.5. INVESTIGACIÓN E INNOVACIÓN EDUCATIVA | **EF.5. IKERKETA ETA HEZKUNTZA ERABERRITZEA** |

#### EF.1. LOS SERVICIOS EDUCATIVOS Y FORMATIVOS

Los servicios educativos y formativos son las actividades características del sector educativo. Persiguen el objetivo de mejorar los conocimientos y aptitudes de las personas. Aunque educar y formar se consideren a veces términos sinónimos, cada uno incorpora un matiz que hace su significado diferente del otro. Por *formar* se entiende la adquisición de una aptitud o habilidad para el ejercicio de una determinada función que, por lo general, se entiende en términos profesionales. Mientras que a *educar* le corresponde un significado más general que abarca el perfeccionamiento integral de las facultades intelectuales. El matiz tiene sentido *a priori*; sin embargo, en las actividades orientadas a la enseñanza el objetivo general suele mezclarse con el específico, razón por la que en SCE ambas actividades forman parte de una misma categoría funcional.

Por lo general, los servicios educativos y formativos tienen lugar en instituciones específicas, aunque en ocasiones también pueden producirlos unidades cuya actividad primaria no es la educación, lo cual sucede con mayor frecuencia en el caso de los servicios formativos.

Las actividades educativas y formativas pueden clasificarse en niveles educativos. La clasificación por niveles educativos que adopta SCE es la Clasificación Nacional de Educación (CNED), la cual es, a su vez, adaptación de la Clasificación Internacional Normalizada de Educación

#### EF.1. HEZKUNTZA- ETA PRESTAKUNTZA-ZERBITZUAK

Hezkuntza- eta prestakuntza-zerbitzuak hezkuntza-sektorearen berezko jarduerak dira. Pertsonen ezagutza eta ahalmenak hobetzea dute helburu. Heztea eta prestatzea askotan sinonimotzat jotzen dira; hala ere, esanahiak bereizten dituzten ñabardurak badaude. Prestatu esaten dugunean, funtzio zehatz bat betetzeko ahalmen bat edo trebezia bat hartzea esan nahi dugu; funtzio hori profesionala izan ohi da. Hezteak aldiz, esanahi zabalagoa, du eta buru-ahalmenaren garapen osoa hartzen du. Hala ere, ñabardura horrek a priori du zentzua; izan ere, irakaskuntzara bideratutako jardueretan helburu nagusia helburu zehatzarekin nahasi ohi da. Horregatik, Hezkuntza Kontuen Sisteman bi jarduerak kategoria funtzional berean daude.

Oro har, hezkuntza- eta prestakuntza-zerbitzuak erakunde jakinetan ematen dira; baina batzuetan hezkuntza lehenengo jardueratzat ez duten unitateek ematen dute zerbitzu hori, eta prestakuntza-zerbitzuetan sarriagotan gertatzen da hori.

Hezkuntza- eta prestakuntza-jarduerak hezkuntza-mailen arabera sailka daitezke. Hezkuntza Kontuen Sistemak hartutako hezkuntza-mailen sailkapena Hezkuntzaren Espainiako Sailkapena (CNED) da, eta sailkapen hori, era berean, Hezkuntzaren Nazioarteko Sailkapen

(ISCED-97). Esta última sirve como referente para las clasificaciones por niveles educativos en prácticamente todas las estadísticas internacionales sobre el sector.

CNED propone un total de 13 categorías (con códigos desde la A hasta la M) y 26 grupos en lo que se refiere a los niveles educativos.

### EF.2. LAS ACTIVIDADES COMPLEMENTARIAS

Las actividades complementarias no son actividades que tengan una finalidad educativa. Sin embargo, son gestionadas por instituciones educativas y actúan como complemento de los servicios educativos que proporcionan éstas, constituyendo para ellas actividades secundarias. Las actividades complementarias más comunes son las de transporte, comedor y residencia, aunque se incluyen en esta categoría otras como salud escolar o los servicios psicopedagógicos a los alumnos.

### EF.3. LIBROS Y MATERIAL ESCOLAR ADQUIRIDO POR LOS HOGARES

En esta categoría se recogen exclusivamente los libros y el material adquirido por los hogares, puesto que el material adquirido y empleado en los centros educativos se considera parte del servicio que éstos ofrecen.

### EF.4. ADMINISTRACIÓN GENERAL DEL SISTEMA EDUCATIVO

La administración general del sistema educativo dispone de un capítulo aparte en la clasificación funcional atendiendo a que se distingue de los servicios propiamente educativos y a los problemas que se derivarían de tratar de imputar los gastos derivados de esta actividad a las diferentes categorías en que se clasifican los servicios educativos. Además, la administración general del sistema educativo recibe un tratamiento diferente por cuanto que adquiere la consideración de consumo efectivo colectivo.

### EF. 5. INVESTIGACIÓN E INNOVACIÓN EDUCATIVA

En esta última categoría SCE recoge las actividades de investigación e innovación educativas orientadas a la preparación de material curricular así como a la mejora y difusión de los métodos pedagógicos y docentes dirigida a la cualificación científico-didáctica de los docentes. Como en el caso anterior, la investigación y la investigación educativa constituye, por convenio, consumo efectivo colectivo.

Normalizatuan (ISCED-97) oinarrituta dago. Azken hori hartzen da erreferentetzat sektorearen inguruko nazioarteko estatistika ia guztietan, hezkuntza-mailaren araberako sailkapenak egiteko orduan.

Hezkuntzaren Espainiako Sailkapenak guztira 13 kategoria proposatzen ditu (Atik Mrako kodeekin), eta, hezkuntza-mailei dagokienez, 26 talde.

### EF.2. JARDUERA OSAGARRIAK

Jarduera osagarriek ez dute heztea helburu. Hala ere, hezkuntza-erakundeek kudeatzen dituzte eta horiek emandako hezkuntza-zerbitzuen osagarri dira, bigarren mailako jarduera bilakatuz. Jarduera osagarri ohikoenak garraioa, jantokia eta bizilekua dira, baina eskola-osasuna edo ikasleentzako psikopedagogia-zerbitzuak ere sar daitezke kategoria honetan.

### EF.3. ETXEGUNEEK EROSITAKO LIBURUAK ETA ESKOLA-MATERIALA

Kategoria honek etxeguneek erositako liburuak eta materiala soilik hartzen ditu barne; izan ere, ikastegiek erosten eta erabiltzen duten materiala eskainitako zerbitzuaren partetzat hartzen da.

### EF.4. HEZKUNTZA-SISTEMAKO ADMINISTRAZIO OROKORRA

Hezkuntza-sistemaren administrazio orokorrak kapitulu bereizia du sailkapen funtzionalean, kontuan hartuta hezkuntza-zerbitzuak eta horien gastuak hezkuntza-zerbitzuen sailkapeneko kategorietan sartzen saiatzeak ekarriko lituzkeen arazoak. Gainera, hezkuntza-sistemaren administrazio orokorrak tratamendu desberdina jasotzen du, benetako kontsumo kolektibotzat hartzen baita.

### EF. 5. IKERKETA ETA HEZKUNTZA ERABERRITZEA

Hezkuntzaren Kontuen Sistemaren azken kategoria honek material kurrikularra prestatzeko ikerketa-jarduerak eta hezkuntza eraberritzea jasotzen ditu, bai eta irakasleen prestakuntza zientifiko-didaktikora zuzendutako irakaskuntzako eta pedagogiako metodoak hobetzea ere. Aurreko kasuan bezala, ikerketak eta hezkuntza-ikerketak, hitzarmenez, benetako kontsumo kolektiboa osatzen dute.

# 6.1. TAULA. HEZKUNTZA- ETA PRESTAKUNTZA-ZERBITZUEN SAILKAPENA HEZKUNTZA-MAILEN ARABERA
## TABLA 6.1. CLASIFICACIÓN DE LOS SERVICIOS EDUCATIVOS Y FORMATIVOS POR NIVELES EDUCATIVOS

### CNED-2000. Categorías y grupos[1]

A. Educación Infantil
- 01. Primer ciclo de educación infantil (0-3 años)
- 02. Segundo ciclo de educación infantil (3-6 años)

B. Educación primaria
- 11. Educación primaria
- 12. Enseñanzas iniciales para adultos
- 13. Enseñanzas de grado elemental de música y danza

C. Programas para la formación e inserción laboral que no precisan de una titulación académica de la primera etapa de secundaria para su realización.
- 21. Programas para la formación e inserción laboral que no precisan de una titulación académica de la primera etapa de secundaria para su realización.

D. Primera etapa de educación secundaria
- 22. Educación Secundaria Obligatoria
- 23. Educación secundaria de adultos.

E. Programas para la formación e inserción laboral que precisan de una titulación de estudios secundarios de primera etapa para su realización.
- 31. Programas para la formación e inserción laboral que precisan de una titulación de estudios secundarios de primera etapa para su realización.

F. Segunda etapa de la educación secundaria.
- 32. Enseñanzas de bachillerato.
- 33. Enseñanzas de grado medio de formación profesional específica y equivalentes, artes plásticas y diseño y deportivas.
- 34. Enseñanzas de grado medio de música y danza.
- 35. Enseñanzas de las escuelas oficiales de idiomas.

G. Programas para la formación e inserción laboral que precisan de una titulación de estudios secundarios de segunda etapa para su realización.
- 41. Programas para la formación e inserción laboral que precisan de una titulación de estudios secundarios de segunda etapa para su realización.

H. Enseñanzas de grado superior de formación profesional específica y equivalentes, artes plásticas y diseño y deportivas.
- 51. Enseñanzas de grado superior de formación profesional específica y equivalentes, artes plásticas y diseño y deportivas.

I. Otros programas de 2 y más años que precisan del título de bachiller.
- 52. Títulos propios de universidades que no sean de postgrado y otros programas que precisan del título de bachiller (2 y más años).
- 53. Programas para la formación e inserción laboral que precisan de una titulación de formación profesional de grado superior para su realización.

J. Enseñanza universitaria de primer y segundo ciclo.
- 54. Enseñanzas universitarias de primer ciclo y equivalentes.
- 55. Enseñanzas universitarias de primer y segundo ciclo, de sólo segundo ciclo y equivalentes.

J. Programas que precisan de una titulación universitaria para su realización
- 56. Programas oficiales de especialización profesional.
- 57. Programas de postgrado impartidos por las universidades u otras instituciones.
- 58. Programas de formación e inserción laboral que precisan una titulación universitaria para su realización.

L. Enseñanza universitaria de tercer ciclo.
- 61. Enseñanza universitaria de tercer ciclo.

M. Programas formativos para los que no se especifica el requisito de formación académica para su realización.
- 91. Programas formativos promovidos por la empresa u organización.
- 92. Otros programas formativos para los que no se especifica el requisito académico para su realización.
- 93. Programas recreativos, de ocio y culturales para los que no se especifica requisito académico para su realización.

[1] Las categorias vienen designadas por letras y los grupos por números.
Fuente: Clasificación Nacional de Educación, CNED-2000.

### CNED-2000 Kategoriak eta taldeak[1]

**A. Haur Hezkuntza**
- **01. Haur Hezkuntzako lehen zikloa (0-3 urte)**
- **02. Haur Hezkuntzako bigarren zikloa (3-6 urte)**

**B. Lehen Hezkuntza**
- **11. Lehen Hezkuntza**
- **12. Helduentzako hastapen hezkuntzak**
- **13. Musika eta dantzako oinarrizko hezkuntzak**

**C. Bigarren hezkuntzako lehen etapako titulu akademikorik behar ez duten prestakuntzako eta lan-munduratzeko programak.**
- **21. Bigarren hezkuntzako lehen etapako titulu akademikorik behar ez duten prestakuntzako eta lan-munduratzeko programak.**

**D. Bigarren hezkuntzako lehenengo etapa**
- **22. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza**
- **23. Helduen bigarren hezkuntza**

**E. Bigarren hezkuntzako lehen etapako titulu akademikoren bat behar duten prestakuntzako eta lan-munduratzeko programak.**
- **31. Bigarren hezkuntzako lehen etapako titulu akademikoren bat behar duten prestakuntzako eta lan-munduratzeko programak.**

**F. Bigarren hezkuntzako bigarren etapa.**
- **32. Batxilergoko hezkuntzak.**
- **33. Lanbide zehatzean prestatzeko erdi-mailako hezkuntzak eta baliokideak, arte plastikoetako eta diseinuko hezkuntza eta kirol-hezkuntza.**
- **34. Musika eta dantzako bigarren hezkuntzak.**
- **35. Hizkuntza-eskola ofizialetako hezkuntzak.**

**G Bigarren hezkuntzako bigarren etapako titulu akademikoren bat behar duten prestakuntzako eta lan-munduratzeko programak.**
- **41. Bigarren hezkuntzako bigarren etapako titulu akademikoren bat behar duten prestakuntzako eta lan-munduratzeko programak.**

**H. Lanbide zehatzean prestatzeko goi-mailako hezkuntzak eta baliokideak, arte-plastikoetako eta diseinuko hezkuntza eta kirol-hezkuntza.**
- **51. Lanbide zehatzean prestatzeko goi-mailako hezkuntzak eta baliokideak, arte-plastikoetako eta diseinuko hezkuntza eta kirol-hezkuntza.**

**I. Batxilergoko titulua behar duten beste 2 urteko edo gehiagoko programa batzuk.**
- **52. Unibertsitateen berezko tituluak (graduatuondokoak ez direnak) eta batxilergoko titulua behar duten beste programa batzuk (2 urte eta gehiago)**
- **53. Goi-mailako lanbide-heziketako titulu akademikoa behar duten prestakuntza eta lan-munduratze programak.**

**J. Lehen eta bigarren zikloko unibertsitate-hezkuntza.**
- **54. Lehen zikloko unibertsitate-hezkuntzak eta baliokideak.**
- **55. Lehen eta bigarren zikloko unibertsitate-hezkuntzak, bigarren ziklokoak eta baliokideak soilik.**

**J. Unibertsitate-titulua eskatzen duten programak**
- **56. Lan-espezializaziorako programa ofizialak.**
- **57. Unibertsitateek edo beste erakunde batzuek antolatutako graduatuondoko programak.**
- **58. Unibertsitate-titulua eskatzen duten prestakuntzako eta lan--munduratzeko programak.**

**L. Hirugarren zikloko unibertsitate-hezkuntza.**
- **61. Hirugarren zikloko unibertsitate-hezkuntza.**

**M. Prestakuntza akademikorik eskatzen ez duten prestakuntzako programak.**
- **91. Enpresek edo erakundeek bultzatutako programak.**
- **92. Prestakuntza akademikorik eskatzen ez duten beste prestakuntza programa batzuk.**
- **93. Prestakuntza akademikorik eskatzen ez duten olgetako, aisialdiko eta kulturako programak.**

**[1] Letrek kategoriak izendatzen dituzte, eta zenbakiek, taldeak.**
**Iturria: Hezkuntzaren Espainiako Sailkapena, CNED-2000.**

### 6.2 Clasificación del gasto en educación por proveedores (SCE-EP)

Este segundo criterio, SCE-EP, clasifica el gasto en educación en función del proveedor del bien o del servicio. De acuerdo con este criterio se obtienen cinco categorías diferentes:

### 6.2 Hezkuntza-gastuaren sailkapena hornitzaileka (HKS-EP)

Bigarren irizpide honek (HKS-EP) ondasuna edo zerbitzua ematen duen hornitzailearen arabera sailkatzen du hezkuntza-gastua. Irizpide horri jarraituz, bost kategoria daude:

| | |
|---|---|
| EP.1. ESTABLECIMIENTOS EDUCATIVOS | **EP.1. IKASTEGIAK** |
| EP.1.1. Establecimientos de enseñanza públicos | **EP.1.1. Ikastegi publikoak** |
| EP.1.2. Establecimientos de enseñanza privados | **EP.1.2. Ikastegi pribatuak** |
| EP.2. CENTROS INTERNOS DE FORMACIÓN | **EP.2. PRESTAKUNTZARAKO BARNE ZENTROAK** |
| EP.2.1. De las Administraciones Públicas | **EP.2.1. Herri-administrazioenak** |
| EP.2.2. De las Empresas | **EP.2.2. Enpresenak** |
| EP.3. ESTABLECIMIENTOS DE VENTA AL PÚBLICO DE LIBROS DE TEXTO Y MATERIAL ESCOLAR | **EP.3. IKASLIBURUAK ETA ESKOLA-MATERIALA SALTZEN DITUZTEN DENDAK** |
| EP.4. ADMINISTRACIÓN PÚBLICA DEL SISTEMA EDUCATIVO | **EP.4. HEZKUNTZA-SISTEMAKO HERRI-ADMINISTRAZIOA** |
| EP.5. OTROS PROVEEDORES DE EDUCACIÓN | **EP.5. HEZKUNTZAKO BESTE HORNITZAILE BATZUK** |

#### EP.1. ESTABLECIMIENTOS EDUCATIVOS

Adquieren esta denominación en SCE los establecimientos cuya actividad principal es la educativa o formativa. De acuerdo con su titularidad los establecimientos educativos se dividen en públicos y privados.

Se incluye en esta categoría el gasto financiado por cualesquiera unidades institucionales en las actividades complementarias que son gestionadas por dichos centros.

#### EP.2. LOS CENTROS INTERNOS DE FORMACIÓN

SCE denomina de esta manera a las subunidades organizativas de los establecimientos cuya actividad principal no es la educativa pero que desarrollan una actividad educativa con el fin de formar a sus empleados en la realización de tareas y funciones específicas. La actividad educativa adquiere en estos casos un carácter auxiliar.

#### EP.3. ESTABLECIMIENTOS DE VENTA AL PÚBLICO DE LIBROS DE TEXTO Y MATERIAL ESCOLAR

Son los establecimientos dedicados a la venta de este tipo de artículos cuyo valor es objeto de contabilidad en el SCE al adquirir la consideración de bienes relacionados con las actividades educativas.

#### EP.1. IKASTEGIAK

Jarduera nagusia hezkuntza edo prestakuntza duten ikastegiek hartzen dute izen hori Hezkuntzako Kontuen Sisteman. Titulartasunaren arabera, ikastegiak publikoetan eta pribatuetan banatzen dira.

Kategoria horrek edozein erakunde-unitatek finantzatutako gastua barne hartzen du, ikastegi horiek antolatutako jarduera osagarrietan.

#### EP.2. PRESTAKUNTZARAKO BARNE-ZENTROAK

Hezkuntza Kontuen Sistemak izen hori ematen die eztablezimendutako antolakuntzako azpi-unitatei, establezimendu horien jarduera nagusia hezkuntza ez denean, baina hezkuntza-jarduera egiten dutenean, lan eta funtzio zehatzetarako prestatzen baitituzte langileak. Kasu horietan hezkuntza-jarduerak osagarriak izaten dira.

#### EP.3. IKASLIBURUAK ETA ESKOLA-MATERIALA SALTZEN DITUZTEN DENDAK

Eskola-materialak saltzen dituzten establezimenduak dira. hezkuntza-jarduerei lotutako ondasuna izateagatik, Hezkuntza Kontuen Sistemako kontabilitateak kontuan izaten ditu salgai horien balioa.

**EP.4. ADMINISTRACIÓN PÚBLICA DEL SISTEMA EDUCATIVO**

Bajo esta rúbrica se reúnen las unidades del sector de Administraciones Públicas con competencias en el sector educativo, que producen servicios de administración general del sistema educativo.

**EP.5. OTROS PROVEEDORES**

Por último, el SCE añade a las categorías anteriores una de carácter marginal cuyo objeto es el de dar cabida a todos aquellos proveedores secundarios de educación, instituciones cuya finalidad principal no es la educativa pero que dedican recursos a actividades propias del dominio de la educación.

### 6.3 Clasificación del gasto en educación según las unidades que lo financian (SCE-ER)

La clasificación de financiadores de SCE responde a las definiciones de los sectores y subsectores institucionales que propone SEC-95 y distingue las siguientes categorías de financiadores:

**EP.4. HEZKUNTZA-SISTEMAKO HERRI--ADMINISTRAZIOA**

Izenpe hori hezkuntza-sektorean eskumenak dituzten Herri-administrazioei dagokie, hezkuntza-sisteman administrazio orokor zerbitzuak ematen dituztenei, hain zuzen.

**EP.5. BESTE HORNITZAILE BATZUK**

Azkenik, Hezkuntza Kontuen Sistemak beste kategoria bat gehitu du, hezkuntzaren bigarren mailako hornitzaileak eta hezkuntza helburu nagusi ez duten -baina hezkuntza-eremuan berezko diren jardueretan lan egiten duten- erakundeak barne hartzen dituena.

### 6.3 Hezkuntza-gastuaren sailkapena finantzaketa-unitateen arabera (HKS-ER)

Hezkuntza Kontuen Sistemaren finantzatzaileen sailkapena KES-95ak proposatutako erakunde-sektoreen eta -azpisektoreen araberakoa da; honako finantzatzaile-kategoria hauek bereizten ditu:

| | |
|---|---|
| ER.1. FINANCIACIÓN PÚBLICA | **ER.1. FINANTZAKETA PUBLIKOA** |
| ER.1.1. Administraciones Públicas | **ER.1.1. Herri-administrazioak** |
| ER.1.1.1. Administración central | **ER.1.1.1. Administrazio zentrala** |
| ER.1.1.2. Comunidades Autónomas | **ER.1.1.2. Autonomia-erkidegoak** |
| ER.1.1.3. Corporaciones Locales | **ER.1.1.3. Toki-erakundeak** |
| ER.1.2. Administraciones de Seguridad Social | **ER.1.2. Gizarte Segurantzako administrazioak** |
| ER.2. FINANCIACIÓN PRIVADA | **ER.2. FINANTZAKETA PRIBATUA** |
| ER.2.1. Sociedades | **ER.2.1. Sozietateak** |
| ER.2.2. Hogares | **ER.2.2. Etxeguneak** |
| ER.2.3. Instituciones sin Fines de Lucro al Servicio de los Hogares (ISFLSH) | **ER.2.3. Etxeen zerbitzura dauden eta mozkinik ateratzeko asmorik ez duten erakundeak (ISFLSH)** |
| ER.2.4. Resto del Mundo | **ER.2.4. Munduko gainerakoak** |

**ER.1. FINANCIACIÓN PÚBLICA**

La financiación pública comprende la que tiene como origen instituciones que pertenecen a algunos de los siguientes sectores institucionales:

**ER.1.1. ADMINISTRACIONES PÚBLICAS (EXCEPTO LAS DE SEGURIDAD SOCIAL)**

En este sector se hallan recogidas todas las unidades institucionales de los gobiernos centrales, regionales o locales.

**ER.1. FINANTZAKETA PUBLIKOA**

Finantzaketa publikoak honako erakunde-sektore hauek barne hartzen dituzten erakundeetan du jatorria:

**ER.1.1. HERRI ADMINISTRAZIOAK (GIZARTE SEGURANTZAKOAK IZAN EZIK)**

Sektore honek gobernu zentralaren edo eskualdeko eta tokiko gobernuen erakunde-unitate guztiak hartzen ditu.

## ER.1.2. ADMINISTRACIONES DE SEGURIDAD SOCIAL

Son aquellas instituciones encargadas de llevar a cabo programas de seguro que cubren bien a toda la comunidad, bien a amplios sectores de ésta, y que son establecidos y gestionados por las administraciones públicas.

## ER.2. FINANCIACIÓN PRIVADA

Se compone de las siguientes subsectores:

## ER.2.1. SOCIEDADES

Este capítulo comprende las sociedades cuya actividad principal es la producción de bienes o servicios de mercado.

## ER.2.2. HOGARES

Comprende a los individuos o grupos de individuos, tanto en su condición de consumidores como en la de empresarios, que producen bienes o servicios de mercado (siempre y cuando no deban ser considerados cuasisociedades) y para uso final propio.

## ER.2.3. INSTITUCIONES PRIVADAS SIN FINES DE LUCRO AL SERVICIO DE LOS HOGARES.

Las instituciones sin fines de lucro al servicio de los hogares (ISFLSH) son instituciones sin fines de lucro dotadas de personalidad jurídica que sirven a los hogares y que son productores privados no de mercado.

## ER.2.4. RESTO DEL MUNDO

Este sector está formado por las unidades institucionales no residentes que realizan operaciones con las residentes. En la Cuenta de Educación este sector se circunscribe a la actuación del Fondo Social Europeo como financiador de actividades educativas y formativas .

## 7 DEFINICIONES SEC DE LAS OPERACIONES ECONÓMICAS.

La definición de las operaciones de distribución y producción que se contemplan en las cuentas por sectores institucionales responde a categorías propias de la Contabilidad Nacional y se adecua a los criterios marcados en el SEC-95. A continuación se proporcionan definiciones breves para cada una de estas operaciones:

P.4 Consumo final efectivo. Se corresponde con el valor de los bienes y servicios adquiridos por las unidades institucionales residentes para la satisfacción directa de las necesidades humanas, ya sean éstas individuales o colectivas. Recogiendo dos categorías:

P.41 Consumo efectivo individual. Valor de los bienes y servicios adquiridos por los hogares con el objeto de satisfacer las necesidades de sus integrantes.

## ER.1.2. GIZARTE SEGURANTZAKO ADMINISTRAZIOAK

Komunitate osoa, nahiz komunitateko sektore asko eta asko babesten dituzten aseguru-programak aurrera eramateko ardura duten erakundeak dira. Aseguru-programa horiek herri-administrazioek kudeatzen dituzte.

## ER.2. FINANTZAKETA PRIBATUA

Honako azpisektore hauek osatzen dute:

## ER.2.1. SOZIETATEAK

Kapitulu horretan sartzen dira jarduera nagusitzat merkatuko ondasun edo zerbitzuak ekoiztea duten baltzuak.

## ER.2.2. ETXEGUNEAK

Arlo horretan, banakoak edo banakoen taldeak sartzen dira, bai kontsumitzaile diren aldetik, bai enpresaburuak –merkaturako (baldin kuasi baltzuak ez badira) diren nahiz norberarentzako azken erabilera duten ondasun edo zerbitzuak ekoizten dituztenak– diren aldetik.

## ER.2.3. ETXEEN ZERBITZURA DAUDEN ETA MOZKINA ATERATZEKO ASMORIK EZ DUTEN ERAKUNDE PRIBATUAK.

Etxeen zerbitzura dauden mozkinik ateratzeko asmorik gabeko erakundeak (ISFLSH) mozkinik ateratzeko asmorik gabeko erakundeak dira, nortasun juridikoa dute, eta etxeetan ematen dute zerbitzua; halaber, produktore pribatuak dira, ez merkatukoak.

## ER.2.4. MUNDUKO GAINERAKOAK

Unitate egoiliarrekin eragiketak egiten dituzten erakunde-unitate ez-egoiliarrek osatzen dute sektore hori. Hezkuntza-kontuan, sektore hori Europako Gizarte Funtsaren hezkuntza- eta prestakuntza-jardueren finantzaketaren barruan dago.

## 7 ERAGIKETA EKONOMIKOEN DEFINIZIOAK KONTUEN EUROPAKO SISTEMAREN ARABERA.

Erakunde-sektorekako kontuetan ageri diren banaketa- eta produkzio-eragiketei buruzko definizioak Espainiako kontabilitateko kategoria propioei dagozkienak dira, eta KES-95ean adierazitako irizpideetara egokitzen dira. Ondoren, kontzeptu horietako bakoitzaren definizioa zehaztuko dugu:

P.4 Benetako azken kontsumoa. Erakunde-unitate egoiliarrek giza beharrizanak (banakoak nahiz kolektiboak) zuzenean betetzeko erositako ondasunen eta zerbitzuen balioarekin bat datoz. Horren baitan bi kategoria daude:

P.41 Benetako kontsumo indibiduala. Etxeguneek etxekoen beharrizanak betetzeko erositako ondasun eta zerbitzuen balioa.

P.42 Consumo efectivo colectivo. Son aquellos servicios que se prestan de forma simultánea a todos los miembros de la comunidad o de una parte específica de ésta.

El SEC-95 contempla los asuntos y servicios de la educación entre los bienes y servicios de uso individual, con excepción de los gastos en administración general, ordenamiento, investigación etc., que forman parte del consumo efectivo colectivo de las administraciones públicas. SCE adopta este mismo criterio.

D.39. Otras subvenciones a la producción. Comprenden las subvenciones que pueden recibir las unidades de producción residentes como consecuencia de su participación en la producción. En SCE se incluyen en esta operación las subvenciones de los costes de los programas de formación organizados o financiados por las empresas.

D.61 Cotizaciones sociales. Son las cotizaciones sociales efectivamente abonadas por los empleadores, los asalariados, o los trabajadores autónomos y desempleados con el fin de asegurar la provisión de prestaciones sociales a las personas protegidas. También se consideran cotizaciones sociales, en este caso imputadas, las contrapartidas de las prestaciones sociales directas de los empleadores, menos, en su caso, las cotizaciones sociales a cargo de los asalariados

D.63 Transferencias sociales en especie. Comprenden los bienes y servicios individuales proporcionados a los hogares como transferencias en especie por unidades de las Administraciones Públicas y las ISFLSH, tanto si se han adquirido en el mercado, como si proceden de la producción no de mercado de las unidades de las administraciones públicas y las ISFLSH. Se distinguen las siguientes categorías:

D.631 Prestaciones sociales en especie. Son las transferencias sociales en especie destinadas a liberar a los hogares de la carga financiera que representa para ellos la cobertura de una serie de riesgos y necesidades sociales.

D.632 Transferencias de bienes y servicios no de mercado individuales. Son el resto de las transferencias sociales proporcionadas por Administraciones Públicas o ISFLSH, es decir, aquéllas que no se corresponden con regímenes de seguridad social o de asistencia social.

D.73 Transferencias corrientes entre Administraciones Públicas. Comprenden las transferencias entre los diferentes unidades y subsectores de las Administraciones Públicas.

D.75 Transferencias corrientes diversas. Comprenden el resto de las transferencias corrientes entre las unidades institucionales. En SCE se incluyen en este apartado tanto las becas y ayudas al estudio como los gastos de los empleadores, administraciones públicas y sociedades, en la formación profesional de sus empleados.

P.42 Benetako kontsumo kolektiboa. Komunitateko kide guztiei edo zati espezifiko bati aldi berean ematen zaizkion zerbitzuak dira.

KES-95aren arabera, erabilera indibiduala duten ondasun eta zerbitzuen artean sartu behar da hezkuntza; administrazio orokorrean, ordenamenduan, ikerketan eta abarretan egindako gastuak izan ezik betiere, horiek herri-administrazioaren benetako kontsumo kolektiboa osatzen baitute. Hezkuntza Kontuen Sistemak irizpide bera du.

D.39. Ekoizpenerako beste diru-laguntza batzuk. Produkzio-unitate egoiliarrek, ekoizpenean parte hartzearen ondorioz, jaso ditzaketen diru-laguntzak hartzen ditu. Hezkuntza Kontuen Sisteman, enpresek antolatutako edo finantzatutako prestakuntza-programen kostuen diru-laguntzak hartzen dira eragiketa horren barruan.

D.61 Gizarte-kotizazioak. Enplegatzaileek, soldatakoek edo langile autonomoek eta langabeek dirutan ordaindutako gizarte-kotizazioak dira, babestutako pertsonen gizarte-prestazioen hornidura ziurtatzeko. Enplegatzaileen zuzeneko gizarte-prestazioen ordainak ere gizarte kotizaziotzat jotzen dira (kasu horretan, egotzitakoak); soldatakoek, hala badagokie, egin beharreko gizarte-kotizazioak izan ezik.

D.63 Gauzatan egindako gizarte-transferentziak. Kontzeptu horren baitan ondasun eta zerbitzu hauek sartzen dira: herri-administrazioek eta etxeen zerbitzura dauden mozkinik ateratzeko asmorik gabeko erakundeek (ISFLSH) etxeei gauzen transferentzien bidez emandakoak, bai merkatuan lortutakoak, bai administrazio publikoek zein etxeen zerbitzura dauden mozkinik ateratzeko asmorik gabeko erakundeek (ISFLSH) ekoiztutakoak, merkatuan lortutakoak izan ez arren. Kategoria hauek bereizten dira:

D.631 Gauzatan emandako gizarte-prestazioak. Gauzatan egindako gizarte-transferentzia horien bidez, etxeak finantzaketa-kargatik libratzen dira, gizarte-arriskuak eta beharrak etxeei ekartzen dizkien finantzaketa-kargatik, hain zuzen.

D.632 Merkatuz bestekoak diren banakako ondasun eta zerbitzuen transferentziak. Herri Administrazioek eta etxeen zerbitzura dauden mozkinik ateratzeko asmorik gabeko erakundeek (ISFLSH) emandako gainerako gizarte-transferentziak dira; hau da, Gizarte Segurantzako edo gizarte-laguntzako erregimenei ez dagozkien gizarte-transferentziak.

D.73 Herri-administrazioen arteko transferentzia arruntak. Kontzeptu horren baitan herri-administrazioetako azpisektoreen arteko transferentziak sartzen dira.

D.75 Askotariko transferentzia arruntak. Kontzeptu horren baitan erakunde-unitateen arteko gainerako transferentzia arruntak sartzen dira. HKSaren atal honetan sartzen dira bai bekak eta ikasketa-laguntzak, eta baita enplegatzaileek, herri-administrazioek eta sozietateek langileen lanbide-heziketan egindako gastuak ere.

## 8 FUENTES ESTADÍSTICAS

La elaboración de la Cuenta de Educación de la C. A. de Euskadi ha supuesto la utilización de diversas fuentes que incluyen tanto datos administrativos como operaciones estadísticas e información directamente obtenida de algunas instituciones ligadas a la provisión o la financiación de educación. Las fuentes más relevantes en esta operación son las que se relacionan a continuación:

- EUSTAT: "Estadística del gasto y financiación de la enseñanza privada"
- EUSTAT: "Estadística del gasto y financiación de la enseñanza pública"
- Gobierno Vasco - Departamento de Hacienda y Administración Pública: Cuenta general de la Comunidad Autónoma de Euskadi. 2001.
- INE: Encuesta Anual de Coste Laboral, 2001.
- INE: Encuesta Continua de Presupuestos Familiares.
- INE: Encuesta de Coste Laboral, 2000
- Ministerio de Educación, Cultura y Deporte: "Estadística del gasto Público en Educación".
- Ministerio de Educación, Cultura y Deporte: Estadística de Becas.
- Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales: "Anuario de Estadísticas Laborales, 2001".
- Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales: Encuesta de Formación Profesional Continua.

Adicionalmente se ha contado con información facilitada directamente por los siguientes organismos:

- Academia de Policía del País Vasco.
- Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco.
- Departamento de Justicia, Trabajo y Seguridad Social del Gobierno Vasco.
- Fundación para la Formación Continua - FORCEM.
- Fundación tripartita para la formación en el empleo.
- Fundación Vasca para la Formación Profesional Continua - HOBETUZ.
- Instituto Nacional de Empleo - INEM.
- Instituto Vasco de Administración Pública.
- Instituto Vasco de Alfabetización y Reeuskaldunización de Adultos (HABE).
- Instituto Vasco de Educación Física (IVEF).
- Universidad del País Vasco (UPV).

La información empleada en las comparaciones internacionales procede de la publicación Education at a glance OECD, Paris, 2003.

## 8 ESTATISTIKA-ITURRIAK

Euskal AEko Hezkuntza Kontua egiteko hainbat iturri erabili dira honako datu hauek lortzeko: datu administratiboak, eragiketa estatistikoak eta hezkuntza finantzatzen edo hornitzen duten hainbat erakundek zuzenean emandako informazioa. Iturri garrantzitsuenak jarraian aipatzen direnak dira:

- EUSTAT: «Irakaskuntza pribatuaren gastuaren eta finantzaketaren estatistika»
- EUSTAT: «Irakaskuntza publikoaren gastuaren eta finantzaketaren estatistika»
- Eusko Jaurlaritza Ogasun eta Herri Administrazio Saila: Euskal Autonomia Erkidegoko kontu orokorra. 2001.
- INE: Lan-kostuen urteko inkesta, 2001.
- INE: Familien aurrekontuen etengabeko inkesta.
- INE: Lan-kostuen urteko inkesta, 2000
- Hezkuntza Kultura eta Kirol Ministerioa: «Hezkuntzako gastu publikoen estatistika».
- Hezkuntza Kultura eta Kirol Ministerioa: Beken estatistika.
- Laneko eta Gizarte Gaietako Ministerioa: «Lan-estatistiken urtekaria, 2001».
- Laneko eta Gizarte Gaietako Ministerioa: Etengabeko lanbide-heziketako inkesta.

Gehigarri gisan, honako erakunde hauek zuzenean emandako informazioa ere izan dugu:

- Euskal Herriko Polizia Ikastegia.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.
- Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila.
- Etengabeko prestakuntzarako fundazioa (FORCEM).
- Enpleguko prestakuntzarako hirualdeko fundazioa.
- Etengabeko Lan-heziketarako Euskal fundazioa (HOBETUZ).
- Enpleguaren Espainiako Erakundea (INEM).
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea.
- Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea (HABE).
- Soin Hezkuntzako Euskal Erakundea (SHEE).
- Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU).

Nazioarteko konparaketak egiteko erabilitako informazioa: Education at a glance OECD Paris, 2003.

## TÉRMINOS

| | |
|---|---|
| SCE. | Sistema de Cuentas de la Educación. |
| CNED. | Clasificación Nacional de Educación. |
| CECAE. | Cuenta de Educación de la Comunidad Autónoma de Euskadi. |
| SEC-95. | Sistema Europeo de Cuentas. |

## SIMBOLOGÍA

En esta publicación se ha utilizado una simbología especial para designar las unidades en que están expresadas las cifras de los cuadros. Dicha simbología es común para todas las publicaciones de EUSTAT y pretende homogeneizar y clasificar la información facilitada en cada tabla. Estos símbolos son los siguientes:

| | |
|---|---|
| □ 000 | Miles de euros |
| % | Expresa porcentajes |
| PPP ($) | Dólares equivalentes calculados mediante la aplicación de las paridades de poder adquisitivo calculadas por OCDE. |

## TERMINOAK

| | |
|---|---|
| HKS. | Hezkuntza Kontuen Sistema. |
| CNED. | Hezkuntzaren Espainiako Sailkapena. |
| EAEHK | Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Kontua. |
| KES-95. | Kontuen Europako Sistema. |

## SINBOLOGIA

Argitalpen honetan sinbologia berezi bat erabili da tauletako zenbakiak zein unitatetan ageri diren adierazteko. Sinbologia bera erabiltzen da EUSTATen argitalpen guztietan, eta, horrela, taula bakoitzean emandako informazioa homogeneizatu eta sailkatu nahi da. Hona hemen sinbolo horiek:

| | |
|---|---|
| □ 000 | Euroak, milakotan |
| % | Ehunekoak adierazten ditu |
| PPP ($) | Ekonomi-lankidetza eta Garapenerako Erakundeak eros-ahalmenaren parekotasunak aplikatuz kalkulatutako dolare baliokideak. |